

IRAKASGAIA: GIZARTE ZIENTZIETAKO MATEMATIKA I

IKASTURTEA: 2018-19

IRAKASLEAK: Lorea Lasarte

TALDEA: G.Z. 1

EDUKIAK:

0.gaia: **PROZESUAK, METODOAK eta JARRERAK (Ikasturtean zehar)**

1.gaia: **ZENBAKIAK (Zeharka)**

2.gaia : **EKONOMIAREN ARITMETIKA (4 aste)**

3.gaia: **ESTADISTIKA DESKRIBATZAILEA (6 aste)**

4.gaia: **PROBABILITATEA. PROBABILITATE BANAKETAK. (5,5 aste)**

5.gaia. **ALJEBRA (5,5 aste)**

6.gaia: **FUNTZIOAK. OINARRIZKO KONTZEPTUAK. (5aste)**

7.gaia: **DERIBATUAK. (5aste)**

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA

G.Z. Mat I

Kontrolak gaiz gai

Kontrol guztietan item guztien gehienezko puntuazioa adieraziko da. Gaia gaindituztat emateko 10 puntutatik 5 atera behar ditu.

Berreskurapena:

Gero, bi asteren buruan edo, berreskurapen proba bat egingen dute gainditzeko gutxienez, 5 atera behar dutelarik.

Gaiaren nota:

Kontrolen kalifikazioak ez ezik, jarrera eta euskararen erabilpena ere jokatuko dute azken nota osatzeko, beti ere kontutan hartuta ikasle batek ez duela 4 baino nota altuagorik izango jarreraren E(oso txarra) kalifikazioa badu. Kasu hau kenduta, jarreraren arabera puntuazioa jaitzi ala igo daiteke (gehienez jota puntu erdi bat).

Ebaluazioko nota:

Ebaluazioa gainditzeko, ebaluazioan zehar egindako gai guztiak (berreskurapenak barne, egin badira) gaindituta izan behar ditu ikasleak. Kasu honetan, kalifikazioa, gai guztien noten batez bestekoa izanen da. Bestela nota 5 baino txikiagoa izango da.

1.deialdiko nota:

Ikasle batek jorratu diren gai guztiak gainditzen baditu, 1.deialdiko nota gai horien guztien noten batezbestekoa izanen da. Gaiaren bat gainditu gabe geratuz gero, beste proba bat egiteko aukera izanen dute ikasle guztiek, gaiz gai antolatua, bere momentuan gainditu ez zituzten gai guztiak aprobatu behar dituztelarik. Pendiente dituen gai bakoitzean, gutxienez 5 atera behar du gai hori gainditzeko.

2.deialdiko nota:

Azkeneko aukera, gainditugabekoentzat, 2.deialdikoa izanen da, bertan pendiente dituen gaien berreskurapen proba egin beharko du. Gainditzeko, gutxienez, 5 bat atera behar.

